



# ASTEASUREN TXANDA BIHARKOAN

Azoka Berezia antolatu dute goiz eta arratsalde; aurtengo berezitasunen artean, arroz esne lehiaketa dago >6

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2009-09-26

VIIURTEA 1.986.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Urtero bezala, herensugeak iragarri zuen festen hasiera; jende ugari bildu zen plazan txupinazoan. IMANGOL GARCIA

## BERDEZ JANTZI DA IRURA HERENSUGEAREN ETORRERAREKIN

**IRURA** San Migel jaien lehen eguna izan zen atzokoa; txupinazoa Bixi Larrinagak bota zuen; gaur, haur eta gazteen eguna ospatuko dute

**'Stop autoa'**  
performance-a,  
berokuntza  
globalari  
buruzko  
hausnarketa

**TOLOSA** Laskorain,  
Samaniego eta Hirukideko  
ikasleek egin zuten 2



Herriko kaleak zeharkatu zituzten ehunka ikaslek. ESTI EZEIZA

## 15 zaldi ariko dira bihar Zizurkilgo 8. Zaldi Lasterketan.

## «Herriko produktuen» azoka egingo dute estreinakoz

**LEABURU** Urriaren 11n izango da; baserritarrei orain arte izan ez duten aukera eskaini nahi diete s

## Tolosaldea Ikastn zerbitzuak ikastaro ugari antolatu ditu

**Joxean**

- inst. industrialak
- iturgintza
- aire egokitua
- berokuntza
- eguzki plakak
- gasa

Jai zoriontsuak opa dizkizue irurar guztiei

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • mug.:656416808

•BERRIREKIERA•

# berogas

Bainugelak, sukaldeak, berokuntza,  
gasa, energia berriztagarriak

Gremioen  
koordinazioa

San Frantzisko, 10 • TOLOSA • Tel.: 943 653 307

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)

## Euskararen aldeko mendi-buzoia jarriko dute bihar Kukuarrin

**Euskara** » Laskorain ikastolak antolatu du igande honetako txangoa; 19. buzoia jarriko dute bihar goizean, kostaldean.

### ERREDAKZIOA

Urtero bezala, Laskorain ikastolakoek, Atarrabia eta Lizarrako ikastolekin eta Gasteizko Euskaraz Bizi taldearekin batera, Argitxoren omenez mendi-buzoia jarriko dute Kukuarrin. Biharko hitzordua 19.a izango da. Hau da, Euskal Herriko menti tontor batera joan eta jartzen duten 19. buzoia da.

Ekimen hau txandaka antolatzen dute Atarrabia, Lizarra eta Gasteizkoekin batera. Aurtengogan, Tolosakoei egokitu zaie egun hori prestatzea. 09:30ean jarriko dute hitzordua Tolosan. Autobusez Igeldorajoan eta Kukuarrin ekialdia egin ondoren, Oriora jaitsiko dira. Harakobidean, atsedenerako tartea ere hartuko dute, hamaiketako egiteko. Bazkalordua eta arratsaldea Orio bertako hondartzan igaroko dute. Honenbestez, ekimenean parte hartzera gonbidatzen dituzte tolosarrak «euskararen alde egun eder bat igarotzeko aukera ematen baitu txango honen».

## Laburrak

### Argi mozketak egingo ditu Tolargik hilaren 28an

**EKONOMIA** » Tolargik bere instalazioetan zenbait hobekuntza eta mantenu lan egingen ari da. Horren ondorioz, hurrengo egunetan argindar mozketak egingo ditu. Honenbestez, hilaren 28an, 15:00etatik 16:00etara, Soldadu kaleko 1,3, 8, 10 eta 12 zenbakietan; Antonio Lekuona kaleko 2 eta 7an, nahiz Pablo Gorosabel kaleko 4 eta 6an argirik gabe egongo dira.

### Urriaren 3an San Esteban elkarteak festa izango da

**GIZARTEA** » Tolosako San Esteban elkarteak bere urteroko festa ospatuko du herendik gutxira, urriaren 3an hain zuzen ere. Hasteko, 14:30ak aldera bazkaria izango da, eta ondoren, bazkalostea alaitzeko, mus txapelketa. Jaialdian parte hartu nahi duten bazkideek elkartean bertan eman dezakete izena. Honetarako epea urriaren 1ean amaituko da.

### Bi erakusketa ikusgai daude Aranburu Jauregian

**KULTURA** » Bi erakusketa ikusgai daude egun hauetan Aranburu Jauregian. Lehendabizikoak *Liburutegia gudan* du izena, eta 41 panel eta dokumental batez osaturiko lana da. Urriaren 3ra arte egongo da ikusgai. Bigarrena berriz, Iñigo Altolagirreren margolanaz osatua dago. Honek espreski Aranbururako egin ditu lanak eta urriaren 30era arte jarriko gongo dira. Erakusketak ikusteko ordutegia ondorengoa da: 17:30etik 20:30era, astelehen eta jaiegunetan izan ezik.



Liburutegia gudan erakusketa. I. T.



## Autoen tokia ikasleek hartu dute

**INGURUMENA** » Tolosako kaleak aztoratzea lortu zuten atzo Samaniego, Laskorain eta Hirukideko ikasleek. Mugikortasun Astearen baitan, *Stop auto* leloarekin erdiguneko kaleetatik barrera desfile moduko bat egin zuten. Bozgoragailu eta pankartak aurretik hartuta, ehunka lagun paseatu ziren kaleetatik. Batzuek, bizikletan egin zuten ibilbidea, eta beste batzuek, kar-toizko auto batzuen barruan. Eskola Agenda 21 Proiektuaren barruan, Tolosako ikastetxeak aurreko

urtetik lantzen ari diren ekintza bat da hau. Ekintza salatzaile honekin, autoek kaleetan okupatzen duten espazioaren eta berokuntza globalean duten eraginaren inguruan, hausnarketa egitera gonbidatu nahi izan zituzten tolosarrak. Gaur ekitaldiekin jarraituko dute. Egun guztian zehar Mugikortasun iraukorraren erakusketa eta zirkuitoa egongo dira Triangulon. Bestalde, Car Sharing Elkarteak stand batean bere lanaren berri emango du. E. EZBIZA

## Sei lagun atxilotu ditu Ertzaintzak kobrea lapurtzen saiatzeagatik

**Gizartea** » Herenegun gauean gertatu zen hau; Tolosako bi paper lantegiren ondoan atzeman zituzten.

### ERREDAKZIOA

Herrizaingo sailak jakitera eman zuenez, sei lagun atxilotu zituen atzo herenegun Ertzaintzak, 23:15ean Tolosako paper lantegi batean kobrea lapurtzen ari zirelako. Patruila bat ohiko zaintza itzulia ematen ari zela, hiru lagun atzeman zituen egun itxita dauden bi paper lantegiren ondoan. Polizien presentzia ohartuta, susmagarrietako bat poltsa bat gordetzen

hasi omen zen. Hau ikusita, poliziek identifikazioa eskatu zieten eta poltsa miatu zioten. Bertan, erreminta ezberdinak, zerrak eta linternak aurkitu zituzten. Beste ertzain batzuk lantegien barrualderasartu ziren, eta han, beste hiru pertsona aurkitu zituzten, linterna frontalak jarrita zituztela, eta gauzak mozteko tresnekin.

Lagun hauetaz gain, hainbat tokitan, kobre mangerak moztuta aurkitu zituzten, eta kobre material ugari fardotan jarrita, gero eraman ahal izateko. Ondorioz, sei lagun atxilotu egin zituzten. Horietako lauk aurrekariak zituzten lapurretengatik. 21 eta 44 urte artean dituzte atxilotuek, eta atzo epaitegira eraman zituzten.

## Multigims eta golf ikastaro berriak antolatu ditu Usabal kiroldegia

### ERREDAKZIOA

Ohiko ikastaroez gain, beste bi berri ere antolatu ditu hasi berri den ikasturterako Usabal kiroldegia: Multigims eta golf.

Aerobic, GAP, Tonifikazio, aquarobic, pilates eta beste hainbat iharduera biltzen ditu Multigims-ek. Saiok astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira 20:30ean. Hiruhileko bakoitzeko prezioa bazkideentzat 20 eurokoa da eta gainontzekoentzat 30.

Golf-eko saiok astelehenetik ostegunera izango dira 17:00etatik 21:00etara, orduero. Denera zortzi eskola izango dira, eta bazkideentzat prezioa, 40 eurokoa izango da. Besteentzat 70 eurokoa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

## Laburrak

### Rondilla eta Arostegietako pasabideak itxita

**TRAFIKOA** ● Astelehenetik aurrera eta astebetetz, Rondilla 7 eta Arostegietan 12ko pasabidea itxi egingo dituzte berritze lanengatik. Aktuzio hau Alde Zaharreko zeharkako kaleen obren barruan dago.

### TAKen izena emateko aukera zabalik dago

**KIROLA** ● Arrauneko 2009-2010 denboraldi berria hastera doala eta, TAK (Tolosaldeko Arraun Klubak deialdia zabaldu du 2000. Urte bakoitza lehen jaino direnentzat eta orokorki arrauneari hasi nahi dutenentzat. Zerkausiarren beheko leloketan egongo dira astelehen, asteazken eta ostiralean, 18:00etatik 20:00etara.

### 'Tolosa kantari' ekimena gaur eguerdian

**KULTURA** ● Hileko azken larunbatero egin ohi duten bezala, kantujira egingo dute gaur, Tolosako kaleetan. Beti bezala, 12:00etan hasiko dira kantari, *Tontokale*-n. Euskal kantak abestu nahi dituen edonork parte hartu ahalko du ekimen honetan.

## Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Barastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutz Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarano autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# Berrikuntzak eta eskaintza zabala Tolosaldea Ikastn zerbitzuaren eskutik

**Hezkuntza** » Webgunea aldatu eta berritu egin dute; ikasturte berrirako hainbat ikastaro antolatu dituzte.

#### IÑIGO TERRADILLOS

Ikasturte berriari begira hainbat berrikuntzarekin eta eskaintza zabalarekin dator Tolosaldean Ikastn Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzua. Berrikuntza, batez ere, webguneari begira, izan ere, diseinu berria eta atal berriak izateaz gain, erabiltzeko errazagoa egin dute. Eskaintzari dagokionez, berriaz, dagoeneko hainbat ikastaro dituzte prestaurik.

Aurtengoa lagarren ikasturte du Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzua. Tolosaldeko ikaskuntzaren eskaintza bildu eta zabaldu, eta herriarrak euren beharren eta helburuen arabera aholkatzea da zerbitzuaren egiteko nagusia.

#### Eskualdeko ikaskuntza leihatila bakarrean

Hainbat bide dituzte herritarren eskura: batetik, Bitartekotza Zerbitzua Tolosan duen bulegora (Tolosalde Goimailako LH Institutuan, Santa Luzia, 17) joan daiteke, eta han norberaren beharrak azaldu; bestetik, 943 65 11 47 edota 615 77 56 78 zenbakietara dei daiteke edozein zabalantza argitu, izena eman edo hitzordua emateko; helbide elektronikoren bidez ere egin daiteke, [info@ikastn.com](mailto:info@ikastn.com)-en, eta, azkenik, Ikastn webguneko ([www.ikastn.com](http://www.ikastn.com)) *kontaktua* sailetik jar daiteke harremanetan zerbitzuarekin. Gemma Zelaia da bertako ordezkaria, eta ordutegia astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 13:30era eta 15:30etik 15:30era da.



Ikastaro ugari antolatzen dituzte Tolosaldea Ikastn zerbitzuan. HITZA

Tolosaldean Ikastn zerbitzuan garrrantzi berezia du webguneak, izan ere, eskualdeko elkarte nahiz eragile desberdinek eta Ikastn zerbitzuak berak eskaintzen dituzten ikastaroen berri ematen dute, edozein kontsulta egiteko aukera dago, ikaskuntzarekin loturiko albisteak biltzen dituzte eta ikastarorietan izena eman daiteke, besteak beste.

#### Atarian berrikuntzak

Hala, erabiltzaileak informazio hau guztia errazago kudeatu ahal izateko, [www.ikastn.com](http://www.ikastn.com) webgunean hainbat aldaketa eta berrikuntza egin dituzte. Batetik, ikaskuntzari lotutako diru laguntza eta beken inguruko informazio jarri dute. Halaber, ikastaroren bat antolatzeko laguntza ere ematen dutenez, atarian laguntza hori eskatzeko bidea ematen dute orain. Eta, horrez gain, bilatzaileak hobetu dituzte eta diseinua aldatu dute, besteak beste.

Datorren asteartetik aurrera egongo da prest webgune berria ohiko helbidean, hauda, [www.ikastn.com](http://www.ikastn.com)-en. Bitartean,

[www.ikastn.com/web](http://www.ikastn.com/web)-en ikus daitezke egin dituzten berrikuntza guztiak.

#### Ikastaro aukera zabala

Ikaskuntza Bitartekotza Zerbitzua erakundeek eta elkarteek eskualdean antolatzen duten ikastaroren berri emateaz gain, ikastaroak ere antolatzen dituzte, doan gainera. Hala, hainbat dituzte dagoeneko aurreikusita ikasturte berrirako: informatika hastapena eta Internet; sendabelarrak, aromaterapia eta elikagaien terapia; argazkigintza digitala (Photoshop); Microsoft Word; mendekotasuna duten pertsona nagusiak zaintzeko ikastaroa; hobeto zaintzeko trebetasunak eta jarrerak; Microsoft Excel; elikagaien manipulazaila karneta; Mundua gaur egun, nazioarteko gaurkotatua.

Gemma Zelaia zerbitzuaren ordezkari adierazi duenez, jende ugari eman du izena dagoeneko, «agian bizi dugun egoeraren eraginez». Dena den, lekua badago oraindik, beraz, izena emateko edota edozein kontsulta egiteko aukera badute interesatuek.

#### » DATUAK

##### Zerbitzua

■ **Zer.** Tolosaldean Ikastn Bitartekotza Zerbitzua.

■ **Non.** Tolosaldea Goimailako LH Institutua (Santa Luzia, 17); [www.ikastn.com](http://www.ikastn.com); 943 65 11 47 / 615 77 56 78.

■ **Ordutegia.** Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 13:30era eta 15:30etik 18:30era da bulegoko ordutegia.

##### Ikastaroak

■ **Informatika hastapena eta Internet.** 30 ordu. Urriaren 13tik azaroaren 13ra. Astelehenetik ostiralera, 09:30etik 11:30era, Musika Eskolan.

■ **Sendabelarrak, aromaterapia eta elikagaien terapia.** 10 ordu. Urriaren 19tik azaroaren 19ra. Astelehenetik, 17:30etik 20:00etara. Kultur Etxean.

■ **Argazkigintza digitala (Photoshop).** 30 ordu. Urriaren 27tik azaroaren abenduaren 17ra arte. Astearte eta ostegunetan, 17:30etik 19:30era. Tolosaldea GMLHI.

■ **Microsoft Word.** 20 ordu. Azaroaren 2tik 17ra. Astelehena, astearte, asteazkena eta ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara. Musika Eskolan.

■ **Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko ikastaroa.** 12 ordu. Azaroaren 17tik 26ra. Astearte eta ostegunetan, 16:00etatik 19:00etara. Kultur Etxean.

■ **Microsoft Excel.** 20 ordu. Azaroaren 18tik abenduaren 3ra. Astelehena, astearte, asteazkena eta ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara. Musika Eskolan.

■ **Elikagaiak manipulatzeko karneta.** 6 ordu. Taldea osatzean zehaztuko dute lekua eta ordutegia.

■ **Mundua gaur egun tailerra.** 20 ordu. Jesus Torquemadak eman-gogor du. Datorren urteko apirillean.

## Napoleonez 'Bayoneta' eta Labaien

**KULTURA** ● Ramon Labaienen hitzaldia izan zen atzo Kultur Etxean. Napoleonen inguruan ari zen hitz egiten, eta bere berunezko soldadutxoak ere erakutsi zituen. Halaber, historiari erreparatu egiteko beste modu bat ere izan zen atzokoan Kultur Etxean bertan, izan ere, hitzaldiarekin batera, *Bayoneta* aldizkariaren 3. alea aurkeztu zuten. Tolosako Artxiiboak hartzen du parte aldizkari hau egiteko orduan. Hain zuzen ere, era berezian Tolosako bizitza gogorarazten du frantsesen okupazio garaian. I.T.





## Euskal zinemak 'Egunkaria libre!' aldarrikatu du, Zinemaldian

**KOMUNIKABIDEAK** ● *Egunkaria* auziaren aurkako eta auzipetuen aldeko elkarretaratzea egin zuten atzo euskal zinemagintzaren hainbat ordezkari, Kursaalaren atarian, Donostiako Zinemaldia dela aprobetxatuz. *Egunkaria libre!* lelopean, «kuzi hau astakeria da eta

bertain behera utzi dezatela eskatzen dugu», esan zuen Ramon Agirrek, bertaratutako guztien izenean. Guztira 150 lagun inguru bildu ziren elkarretaratzean. Datorren ostiralean, berriz, kirol arlokoen ekimena izango da. GARI BERASALUZE/HITZA

### Laburrak

#### 'Mihiluze' mahai jokoa aritzeko aukera gazteentzat

**ASTEASU** ● Kaxkagor elkarteak ikasurtean zehar Asteasuko gazteen hainbat ekintza gauzatu ditu. Horietan lehena datorren astelehenean bertan egingo dute elkarretakoek, irailaren 28an. Hain zuzen, Kultur Etxean *Mihiluze* mahai jokoa jolasteko aukera izango dute herriko 12-16 urte bitarteko gazteek, 17:30etik aurrera. Bertaratzaren diren artean bikoteak egingo dituzte; ondoren «mihia astintzeari ekingo diogu».

#### Hilaren 30ean hasiko dira gripearen txertoa jartzeko

**IBARRA** ● Hilaren 30ean hasiko dira gripearen txertoa jartzeko. 943 67 24 11an hartu behar da txanda. Ibarra, Berastegi eta Lizartzan egunero jarriko dute; Leaburun urriaren 6an (10:30-11:30); Txaraman urriaren 8an (10:30-11:30); Belauntzan hilaren 30ean (08:30-09:30); Berrobin astearte eta osteguna erizainaren kontsultan; Orexan hilaren 30ean (09:00-10:30); Elduainen urriaren 7an (12:00etan); eta Elduain urriaren 8an 12:00etan.

#### Odola emateko aukera, datorren astean

**BERASTEGI** ● Berastegiko Odol Emaileen Elkarteak datorren asteazkenean, hilak 30, odola emateko aukera izango dela argitu du. Hitzordua 18:30etik aurrera izango da herriko eskolan. Bestalde, festetako ekitaldietan, antolakuntza... eta era batera edo bestera parte hartu zuten guztieek, Errioxara joango dira gaur. 09:00etan aterako dira plazatik eta La Encina upategira joango dira, besteak beste, ardoa dastatzera.

### Lehen 3 puntuak etxean uzteko helburuz ekingo dio denboraldiari Lakunzak

**Villabona** ● Olaederran jokatu du gaur lehen partida, 18:00etan, Lasarteko Aldaz hortz-klinika taldearen aurka.

#### ERREDAKZIOA

Transportes Lakunzak gaur ekingo dio denboraldi berriari, Nazional B mailan. Estreinaldia etxean egingo dute billabonatarrek, Olaederra kiroldegiko kantxan, 18:00etatik aurrera. Aurkaria Lasarteko Aldaz hortz-klinika izango da.

Taldeko arduradunek «partida zaila, gogorra eta borrokatua» izango dela aurreikusituz; «errespetu handiz ariko gara, bi taldeek elkar ezagutzen dugulako», gaineratu dute.

Lakunzako arduradunen helburua, noski, denboraldiko lehen hiru puntuak etxean gera daitezzen izango da. Horretarako zaletuak laguntza eskatu dute: «Jarraitzaile guztiei Olaederrara gertura daitezela eskatzen diegu».

#### Lehen zozketan bi sari

Aurten ere partidako atsedendaldian zozketak egingo dituzte. Gaur bi sari izango dira aukera. Lehena, bi txuleta eta ardo botila bat izango da eta bigarrena Ibarako piperrez osatutako botila bat. Zozketarako txartelak partidaren hasieratik atsedendaldira bitarte eskuratu ahaliko dira kiroldegian bertan, harmailtan prestatuko duten mahai batean.

### Urriaren 11n Euskal Jaian egingo duten bazkarirako txartelak salgai

**Anoeta** ● Urriaren 4ra arte eros daitezke txartelak; arduen paperak ere jarri dituzte Itzulin.

#### ERREDAKZIOA

Heldu den urriaren 11rako Euskal Jaia antolatu dute Anoetan. Egundun honetan egingo duten bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte jada Itzuli, Arkupe, Haizea, Laia eta Buztina tabernetan. Txartelen prezioa 20 eurokoa da, 15 euro langabetu eta ikasleentzat, eta 10 euro 8 urtez beherako umeentzat. Txartelak hartzeko azken eguna urriaren 4a izango da. Tiketak soberan geldituz gero, salgai jarriko dituzte urriaren 11n bertan, azokan, baina 7 euro garestiago.

Arduradunek jakitera eman dutenez, egun Euskal Jaian egunean behar antolakuntzarako arduen paperak jarri dituzte Itzulin, jendeak izena eman dezan.

#### Bilera, asteartean

Honen harira, eguna antolatzeko hurrengo bilera datorren asteartean izango dela jakinarazi dute; 18:00etan da hitzordua, udaletxean. Herriko talde guztiei eta herriar orori deitu diete bertan parte hartzera. Halaber, egun honetarako behin behineko egitaraua ere osatu dute. Besteak beste, dantzariak, baserritar eta artisauen azoka, herri bazkarria, herri kirolak, talogileak, erromeriak, ... izango dira jaian.




## SARIDUNAK

### ① 2 lagunentzako otordua



Errosario plaza ● **ORENDAIN** ● tel.: 943 65 30 48  
● Geno Otamendi (Alegia)



### ③ 2 sarrera eta argazki liburu bat Mendukilo kobazulorako



Nafarroa iparraldean, Plazako Partzeigo Turistikoaren eremuetan eta Aralarako mendizteraren magalean, Zehazkiago, Larraungo bailaian, Astitzko kontzejaren herri burretan.  
**Astiz** ● 948 396 095 ● mendukilo@mendukilo.com ● www.mendukilo.com  
● Tere Alberdi (Anoeta)

### ② Zerbitzu oso bat Honekin ilepaineagian



Santa Maria Plaza, 1 ● **TOLOSA**  
tel.: 943 67 22 44

● Jose Zubeldia (Tolosa)

### ④ 3 disko osaturiko sorta

baga-biga disketxearen eskutik

● Iolanda Etxeberria (Larraul)



Saridunaren harpidedun txartela aurkeztu beharra dago ziurtagiri moduan. Eskaintza berriak hileko azken astearte, asteazken eta ostegunetan argitaratuko dira.

harpidedunen  
**TXOKA hitza** ant

# «Herritarren produktuak plazaratuko ditugu»

**Leaburu** » Azokez jositako hilabeteak ditugu aurretik; bihar Ibarren eta Asteasun eta urriaren 11n baita Leaburu-Txaraman ere.

REBEKA CALVO

Zenbait produkturen jatorria eta kalitatea ezagutzeko ezinezkoa den honetan geroz eta gehiago dira bertako produktuak kontsumitze-ko ekimenak. Bihar urteroko azokak egingo dituzte Ibarra eta Asteasun bertoko produktuekin eta Leaburu-Txaraman ere gauza bera egingo dute urriaren 11n.

Lehen aldiz I. Artisau, Barazki eta Ganadu Azoka egingo dute herrian eta helburua «herritar eta berritarrei orain arte izan ez duten aukera eskaintzea da, hau da, euren produktuak plazaratzea. Barazkiak, animaliak, traste zaharrak eta artisautza produktuak, hauek ere ezkutuan bada ere hor daude eta, bilduko ditugu», dio Ion Otegi, azoka antolatzen aritu diren sei laguneko batek. Deialdia hala ere, zabala izan da, hauxe izan baita antolatzaileen lehentasuna: «Aurreneko bileretatik hasita deialdi zabalak egin ditugu, jende guztiari eman diogu aukera parte hartzeko, bai azokan bertan eta baita antolakuntzan ere. Buzonadak egin ditugu eta bileratarazal dutakoekin egin dugu aurrera».

Produktu guztiak herrikoak izango dira, «inguruan kristoren produktu pila ditugu eta horregatik erabaki genuen ekimen hau an-



Azokaren antolaketa lanean aritu diren sei lagunetako hiru. R. CALVO

tolatzea. Berez, azoka antolatzeko asmoa aspaldikoa da, hala ere», argitu du. Datozen urteetan azoka antolatzen jarraitzeko asmoa ere badute.

## 17 bat postu goiz osoan zehar

Azoka 09:00etatik 14:00etara egingo dute eta postuak Leaburuko plazan jarriko dituzte eguraldi ona eginez gero, bestela frontoian izango dira.

Lehen azoka honetan postu kopuru polita izango dute, oraingo 18 bat pertsonak eman dute eta baiezkoa. Hasieran lotsati samar hasi ziren herritarrek ekimenarekin bat egiten, orain berriz, «kristoren ilusioarekin hartu dute». «Guk uste genuena baino erantzun hobea izan dugu. Hasieran jendeari kostatu egin zitzaion animatzea, *nik ze emangoet ba! Gauza gutxi ditut!* zioten, baina batzuk animatzen joan ahala etorri dira besteak», gogoratu du.

Azoka Larte Azpi Kultur Elkar- teak antolatu du eta bertako kideek azoka baliatu nahi dute elkar- teak ezagutzera emateko. «Hiru bat urte dira elkar- teak sortu genuela, baina orain arte ekintza txikiak egin ditugu: mendi ibilaldiak, Larresoroko egun pasak... Azoka izango da lehen ekitaldi potentea», argitu du Otegi.

Elkar- teak autofinantzaketari eta jendearen borondatezko lanari esker egiten du lan, «saski bat zozketatzeko boletoak saldu ditugu, azoka egunean taberna txiki bat jarriko dugu...», esan du Otegi.

Urriaren 11n hortaz giro ederra izango da Leaburuko plazan. Herriko abere desberdinak, barazkiak eta artisauen produktuak erosteko aukerarekin batera, trikitilariak izango dira, paseoak eman ahal izateko zalgardia... Aukera bikaina herriko produktuen kalitatea ezagutu eta «egun pasa polita» egi- teko.

# Belabietak aurki hasiko ditu entrenamenduak

**Ibarra** » Gimnastika erritmikoko taldeak «haurrak kirol munduan hezteko» jarraituko du lanean ikasturte honetan.

ERRDAKZIOA

Belabietako gimnastika erritmikoko kideak aurki hasiko ditu ikasturte. Arduradunek esan dutenez, helburuak «haurrak kirol giroan hezteko, kirola egiteko zaletasuna sortzea eta gimnastika eginez gorpuzta zaintzea» dira. «Egia da urtean zehar egiten diren txapelketetan emaitza onak lortu izan dituztela eta aurten ere lortzen badituzte pozik hartuko dituzte baina ez da hori berain lehenengo helburua», nabarmendu dute.

Entrenamenduei dagokionez, txikiak, hau da 5 urteko 1. eta 2. mailako haurrak, astearte eta ostegunetan ariko dira 17:30etik 18:30era.

Benjaminak, 3. eta 4. mailakoak, asteazken eta ostiraletan 17:30etik 19:00etara izango dituzte entrenamenduak.

Alebinak, 5. eta 6. mailako gazteak, astearte eta ostegunetan 17:30etik 19:00etara izango dira Belabietan.

Infantilak, hau da, DBH 1 eta DBH 2 kurtsokoak, astearte eta ostegunetan 17:30etik 19:00etara izango dituzte entrenamenduak eta bukatzeko, helduenak, DBH 3 kurtsotik gorakoak, astelehenetan 16:30etik 18:00etara eta asteazken eta ostegunetan 16:00etatik 17:30era ariko dira.



Belabietako taldekoek sari asko jasotzen pasa den ikasturtean. HITZA

**2000E PLANAREN MEMENTOA DA CITROËN MEMENTOA DA**



CITROËN C4  
HDi 11.600€iik

CITROËN C3 | C1 GAMA  
7.300€iik | 6.200€iik

CITROËN XSARA PICASSO  
HDi 12.800€iik

CITROËN C4 SEDÁN  
HDi 15.800€iik

CITROËN KONFIDANTZAZKO PLANA:

LANGABEZI ESTALDURA OPARI

ETA GAINERA %0ko MATRIKULAZIO ZERGA:  
C1 | C2HDi | C3HDi | C4HDi 90/110 FAP/110 CMP FAP



IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** pare du



**LAGUN ARO GBC**  
Caja Laboral Baskonia  
saskibalo partida

**sariduna**

• Alex Goikoetxea (Alegia)

Noiz:  
Irailak 29, Astearte • 20:00etan  
Non:  
Donostiako Arena 2016



TXOKOR hitza

Irailak 29, Astearte • 20:00etan  
Donostiako Arena 2016

sarrerak HITZAKO egoitzan izango dituzue



## Alaitasunari ireki dizkiote ateak Iruran

**IRURA** • San Migel festei hasiera eman zioten atzo arratsaldean. Herensugearen etorrerak eta txupinazoak eraman zieten alaitasuna iruratarrei. Marimi Ugalde alka-teak pregoia esan ondoren Bixi Larrinaga bota zuen txupinazoa, bera baita aurtengo festetan omenaldia jasoko duena. Gaur izango da festen bigarren eguna eta ekitaldi ugari izango dira. Haur eta gazteen eguna da gaurkoa eta, besteak beste, mutilen eta nesken soka dantza izango da, haurrentzat eta gazteentzat bazkaria, sagardo dastaketa eta eguna amaitzeko kontzertua, Bongo Botrako eta Betagarri taldeekin. Zapi berdea lepoan jarrita, festa giroa izango da egunotan Iruran. I. GARCIA

# Bertako esnea bultzatuko dute Azoka Berezian

**Asteasu** » Goiz eta arratsalde egongo da bihar zabalik; aurtengo berritasuna arroz esne lehiaketa izango da.

### ERREDAKZIOA

Azoka Berezia antolatu du Asteasuko Udalak biharko. Goiz eta arratsalde egongo da zabalik eta guztira 60 postu izango dira plaza zein frontoian. Ibargain larrean ganadu erakusketa izango da eta bertan esne behiak, larre behiak, ahuntzak, ardiak... izango dira ikusgai. Esneak herrian duen garrantzia nabarmendu nahi du Udalak, esne behi ugari baitago eta beraz esne produkzioa ere handia da. Hala, aurtun, ohiko esne behien erakustaldiaz gain, arroz esne lehiaketa antolatu dute aurtun lehenengo aldiz. «Bertako esnea



lazko Azoka Bereziko postu bat. ANDER OTEZABAL

kontsumitza bultzatu nahi dugu», azaldu dute Udaletik.

Asteasuarrek parte hartu ahalko dute arroz esne lehiaketan eta bete beharrekoa izango den baldintza

erabakitakoa 12:00etan jakinaraziko da. Irabazleak garaikurra eta dirua jasoko ditu. Bestalde, behi esnea bultzatzeko, baserriko esnea banatuko dute azokan. Horretaz gain, Mahala eta Goenaga enpresak gonbidatu dituzte antolatzaileek, behi esnea erabiliz produktuak egiten dituzten inguruko enpresa nagusienak.

Esne behien erakustaldia 12:30ean izango da. Bertan parte hartuko dute Asteasuko lau baserriko abereek: Ondartza-Bitarte, Iturtasarobe, Arretxe eta Bulano. Erakustaldi honetan lehiaketa batean behiaren zer ezaugarrik kontuan hartzen diren azaltzen joango da albaiari-aurkezlea.

Ohi denez, elikagai eta artisau postuak izango dira, bai Asteasukoak bai beste herrietakoak ere. Mikologia erakusketa ere egingo dute berriro. 200 espezie baino gehiago ikusteko aukera izango da.

### » EGITARAUA

- **10:00-14:00 eta 17:00-20:00.** Azoka Berezia.
- **12:00.** Arroz esne lehiaketaren sari banaketa.
- **12:30.** Esne behien erakustaldia.
- **18:00.** Ardi txakur lehiaketa.

Gainera, norbaitek perretxikoak eraman nahi baditu bertan erakusteko aukera izango du horretarako. Erakusketan jarri nahi baditu bihar eraman ditzake, baina perretxikoak identifikatu eta sailkatu nahi baditu gaur arratsaldean joan beharko du frontoira.

Beste lehiaketa bat ere izango da ikusgai Azoka Berezian. Ardi txakur lehiaketa egingo dute Lamiategi larrean. Bost txakur ariko dira lehiari bertan. Bestalde, eguerdian, zanpanzarrak eta herriko musika eskolako trikitalariak ariko dira azoka giroetan.

# Zaldi azkarrenak zirkuitu bizkorrean

**Zizurkil** » Bihar, 18:00etan, izango da jokoan 8. Zaldi Lasterketa; guztira hamabost zaldik parte hartuko dute proban.

### ERREDAKZIOA

Zortzigarren aldiz antolatu du Zizurkilgo Jai Batzordeak zaldi lasterketa. Zizurkil Goian, udaletxearen ondoko zelaian izango da proba, bihar 18:00etan. Hamabost zaldik parte hartuko dute eta antolakuntzatik azaldu dutenez, «ondo

prestatuta» egongo dira. Eskualdetik hiru zaldun izango dira, Orendain, Zizurkil eta Tolosatik. Ez da faborito nagusirik izango. Gainera, lazko irabazlea, Josu Kasañares, ez da proban izango.

Zirkuitu azkarra da Zizurkilgoa. Hipodromoetan ikusten den antzeko ibilbidea du, hau da, bi zuzen eta bi kurba. Azken hauetako bat maldaxo batigoz egin behar da eta horrek ikusgarritasuna ematen dio probari. Zirkuituaren azkartasunari zaldiena gehitu behar zaio. «Gero eta zaldi odolgarbiagoak daude proba hauetan», zehaztu



Abiadura handia hartzen dute zaldiek aldapa behera. I. AZKUE

dute antolakuntzatik. «Maila oso ona espero da». Horri guztiari zelaieren egoera ona gehitu behar zaio.

Hiru kanporaketa egingo dituzte. Bakoitzean bost zaldi lehiatuko dira eta bost itzuli eman beharko dizkiete zirkuituari, hau da, guztira 1,4 kilometro egingo dituzte. Kanporaketa bakoitzean bi lehenengoak sailkatuko dira finalerako. Irabazleak 300 euro jasoko ditu, bigarrenak 200 euro eta hirugarrenak 100 euro. Bestalde, parte-hartzaile guztiek dietak jasoko dituzte.

## Udal Pilota Eskolan izena emateko aukera irailaren 29tik aurrera

**Anoeta** » Aurtengo ikasturtean pilota modalitate desberdinak landuko dituzte «pilota indartzeko» asmoz.

28an, astelenean. Udal areto nagusian elkartuko dira 19:00etan eta nahi duenak joateko aukera edukiko du. Bertan irakasle berria ezagutzeko aukera egongo da gainera.

### Izena emateko aukera

Udal Pilota Eskolan izena eman nahi dutenek, irailaren 29tik urriaren 7ra bitarte edukiko dute aukera udalarekin edo kiroldegian. Klaseak berriz urriaren 13an hasiko dira.

### Probak egiteko aukera

Bestalde, Pilota Eskolatik ate irekietako jardunaldiak antolatuz dituzte frontoian, irailaren 29tik urriaren 2ra eta 17:15etik 18:15era. Nahi duten umeak ager daitezke, jokamolde desberdinetan nola moldatzen diren proba dezaten. Saio hauek doakoak izango dira, eta ez da beharrezkoa izena ematea; nahikoa da pilotalekuan agertzea aipatu orduan.

### ERREDAKZIOA

Anoetako Udal Pilota Eskolak aurtentean berri batekin jarriko du martxan ikasturtea, azken urteetako gainbeherari aurre egin nahian: «Ikusirik azken urteotan Anoetako Udal Pilota Eskolak izan duen bilakaera, aurtentean planteamendu berri bat eskaini nahi dugu pilota gure herrian indartzeko asmoz. Hortaz, eta besteak beste, multipilota jorratu nahi dugu: hau da, eskuzko jokamoldean oinarrituz, beste jokamolde batzuei ere tokia egin».

Planteamendu hori aurkezteko, eta gurasoen eskaerak, zalantzak, proposamenak etabar ezagutzeko, bilera bat antolatu dute hilaren

## Irurako Nesken Pilota Eskolan izena emateko aukera etzitik aurrera

**Irura** » Eskolak heldu den urriaren 7an hasiko dira Irurako Udal Pilotalekuan eta ekaina bitarte luzatuko dira.

rolaren atalean, hain justu. Ikasturtearen ezagarririk nagusienak honako hauek dira:

### Izena emateko epea

Parte hartu nahi duten neskek irailaren 28tik urriaren 2ra bitarte edukiko dute izena emateko epea: ikastetxea, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan eta 628 90 41 56 telefono zenbakira deituta.

### Data, lekua, ordutegia...

Pilota Eskola urriaren 7an hasiko da, 18:45etik 20:00etara. Ekainera bitarte eskainiko dituzte ikasturteko Irurako Udal Pilotalekuan eta 90 euroko kuota ordaindu beharko dute parte hartzaileek. Irurarrak gutxiago ordaindu beharko dute. Informazio gehiagorako [www.blogak.com/emakumeapilota](http://www.blogak.com/emakumeapilota) blogean sartzea nahikoa izango da.

### ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Irurako Udalarekin lankidetzan, martxan jarriko du berriro ere Irurako Nesken Pilota Eskola, behin udako oporraldia eta San Miel jaiak igaro ostean.

10-16 urte bitarteko neskei zuzenduriko eskaintza da honako hau, eta neskek batez ere paletan arituko dira. Laz zortzi bat neska aritu ziren eta «benetan gustura» amaitu zuten ikasturtea.

2004tik abian den Emakumea Pilotari proiektuaren baitan kokatzen da jarduerak hau ere, eskola ki-

**@ Oharra.** HITZAren webgunean hainbat aldaketa egiten ari dira. Ondorioz, bertan topa daitezkeen zenbait atal blokeatuta daude. Besteak beste, HITZA argazki lehiaketako argazkien bisualizazioa. Arazoa ahalik eta azkarren konpontzen saiatuko dira. Bien bitartean, barkatu eragozpenak.

[www.tolosaldeko HITZA.info](http://www.tolosaldeko HITZA.info)

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Su egurra.** Su egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotara moztua. Etxera eramaten dugu. Harremantarako telefono zenbakia: 615 75 57 62.

## Plazaolako Mendi Bizikleta Martxan eta Maratoi Erdian 700 partaide baino gehiago

**Leitza** » Antolatzaileek parte-hartzaileen kopurua eta Maratoi Erdiaren sailkapenak plazaratu dituzte.

Egun hau, Europako naturbideen eguneko Mugimendu Astearen barruan kokatu zuten eta Espainiako Trenbide fundazioaren eta Europako Natur bideen elkartearen laguntzarekin kontatu zuten.

Maratoi Erdian 21 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten partaideek. Helmuga Lekunberri aurkitzen zen.

### » SAILKAPENA

### ASIER IMAZ

Plazaola Natur Bideak lau lasterketa antolatu zituen iragan igandean eta proba hauetan 700 parte-hartzaile baino gehiago elkartu ziren.

Aurtentean, Plazaola Partzuergo Turistikoak, Lekunberriko, Larraungo, Leitzako eta Andoingo udalen laguntzarekin eta Araitx, Betelu, Areso, Larraun eta Lekunberriko Kirol Komunitatearekin, Plazaola Natur bideko VII. Mendi bizikleta martxa eta IV. Maratoi Erdia antolatu zituen.

### VII. Mendi Bizikleta Martxa

Antolatzaileen esanetan adin desberdinetako 400 pertsonak hartu zuten parte Mendi Bizikleta Martxan. Hauetatik 102 Leitzako Geltokitik irten ziren. Haur martxan berriz 42 ume irten ziren, pailazoen laguntza eta guzti.

### IV. Maratoi Erdia

Korrika uste baino jende gutxiago irten dela azaldu dute Plazaolako kideek, izan ere, «aurten 189 lasterkari aurre-izena emana zuten, baina igandean 150 lasterkari inguru irten ziren 09:30etan Leitzatik.

### IV. Maratoi Erdia

Gizonetakoak	Denbora
1. Jonan Rodriguez	1:16:55
2. Hassan Aitchaou	1:18:08
3. Aimar Agirresarobe	1:18:08
4. Unai Narbaiza	1:19:07
5. Unai Señorán	1:20:16
6. Iker Larrea	1:20:43

### Emakumeetakoak

1. Jasone Altadill	1:44:07
2. Ana Mir	1:45:50
3. Cristina Ciorba	1:48:18
4. Marina Gomez	1:48:50
5. Ana Lopez	1:52:38
6. Alizia Villar	2:04:12



## Lopeneko Iturrian, biribilgunea

**LEITZA** » Biribilgunearen lanak direla medio, lehen faseak irauten duen bitartean, Tolosatik herri erdira sartzeko industrigunetik igaro beharko da. Bigarren fasean Basakabira doan bidea moztuko dute Lopeneko

Iturrian. Biribilgunea egiteko bi hilabete beharko dituzte eta lehen lanak iturrian bertan egiten ari dira. Proiektua Nafarroako Azpiegituren Planaren baitan kokatzen da. A. IMAZ



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraledea:** 687 410 034. ibarraledea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Ibarra.** Iganderako moto irteera Gipuzkoan eta Bizkaian barrena antolatuta du Langostino Moto Elkarteak. Izen-ematea, *langostino-motofesta@gmail.com* edo 618 448194 (Aitor), 670 417915 (Moski) eta 636 403170 (Ander) telefono zembakietan.

■ **Tolosa.** Agata tango argentinarren lagunak Gipuzkoako elkarreko kideak ariko dira dantzantzen 18:30etik 20:30era, Berdura plazan.

■ **Tolosa.** Tolosa Kantari ekimena Tonto kaletik 12:00etan abiatuta. Betiko euskal kantak abestu nahi duten guztiei irekia.

■ **Tolosa.** Bisita gidatuak Topic-en (Euskal Herria plaza) urriaren 3ko eta 10eko asteburuetan: 12:00etatik 18:00etara. Izen-ematea, TEEn (943 650414 telefonoan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara) edo *topic@cittolosa.com*.

### Jaiak

■ **Ibarra.** Bizi-Nahj jubilatuta elkartaren festa: 11:30ean bikote mistoen arteko toka txapelketa, ondoren tomate eta piparren banaketa, 16:30etik 19:30era bingoa klubeko aretoan.

■ **Ikaztegieta.** 11:00etan hasita azoka, Bixente Gorostidi, Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak, herri kirolak (Sakanako emakume tiralariek eta Iñaki eta Iñaxio Perurena harrijasotzaileen erakustaldiak), txalaparta, trikitalariak, perratzailea, idi pareta, dantzariak, animaliak, taloak, sagardo kupeletik...

■ **Irura.** 09:00etan Gazte Festaren hasiera plazan, 11:00etan marrazki lehiaketa, ondoren xare eta pala partidak, 13:30ean mutilen sokadantza, 14:00etan haurren herri bazkaria eta Share elkartean Gazte Festako bazkaria, 15:00etan Tren txu txu eta puzgarriak, 18:00etan Atxiskistan haur jaialdia eta Bonberenea txaranga, 19:00etan nesken sokadantza, 19:30ean sagardo dastaketa, 24:00etan Bongo Botrako eta Betagari.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK


■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Azkenean heldu da finalisten berri emateko unea. Ia hilabetez 90 argazki bildu ditu HITZAK bere lehiaketan; epaimahaiaren ustez ederrenak diren 8 argazkiak biharko alean kaleratuko ditugu

# Lehenak bezain ederrak



**CHEMIN DE LA MÂTURE** ■ «Hortxe dago hormatzararen zehar duela 450 bat urte eginiko *zulotxo*. Itxura denez, Ayous aldetik, Baionako portu aldera bertan moztu eta botatako enborak pasarazteko egin zuten». MIKEL LLARREGI. **IRATI** ■ «Udazkeneko lehen osteko emeki erortzen dira, hotzarantz bidean alfombra lehor bat baillitza. Egusentia Iratitiko». AITZIBER BARANDARAIN **MACHUPICCHU (PERU)** ■ «Aurtengo udan Perun izan gara, Waynapicchu mendia igota harturiko argazkia». JOSEBA SAGASTIBELTZA (LEITZA) **VEJER DE LA FRONTERA (CADIZ)** ■ «Cadizeko herri politenetako bat». INES ORIA (TOLOSA) **PERU** ■ Takile izeneko irlan. Bertako dantza ohikoak ikusteko aukera izan genuen eta beraien hizkuntza entzuteko parada ere bai, quechua. AITZIBER LEKUONA (LEITZA) **SORIA** ■ Uda honetan *Laguna negra* ikusten egon gara egun batzuk Sorian ibilita, paraje zoragarria beneratu. YOANA MENDIZ

## A Agurrak



**Urte askoan!**  
**Urki.**

Gaur 2 urte.  
Zorionak etxekoan partetik.

**Urte askoan!**

Urki. Gaur gure gizon txoko bihurriak 2 urte. Txokolatezko muxuak Irurako osaba-izeba eta lehengusuen partetik.